

EUDELeke ARABAKO LURRALDE BATZORDEA

ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN (ATAFLK) FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO AGERRALDIAREN 2. ZATIA ARABAKO BATZAR NAGUSIETAN

EGUNA: Astelehena, 2014ko martxoaren 31

AGERRALDIAREN ESKEMA

ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA ETA ANTOLAKUNTZA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Arabako Toki Administrazio eta Finantzetarako Lurralde Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendua zehatzago arautzea proposatzen da, Kontseiluaren bilerak eraginkorragoak izan daitezen. Gaur egungo foru-araua 1996. urtekoa da, eta 2008. urtean aldatu zen, gehienbat Arabako kontzejuak kontseiluaren ordezkartzan sartzeko, Arabako Lurralde Historikoan indartsuago ezarrita dagoen kontzejuen elkartearen bidez. 29/1996 Foru Arauak bere artikuluetan jasotzen dituen gutxieneko funtzionamendu-arauez gain, Foru Arauak berak ezartzen du Kontseiluak funtzionamendu-araudia izateko duen aukera.

EUDELen Arabako Lurralde Batzordearen ustez, Arabako Toki Administrazio eta Finantzetarako Lurralde Kontseiluaren baitan denok batera lan egitea neurri eraginkorra eta eraikitzailea izan daiteke funtzionamendu araudi bat izateko, Kontseiluak elkartzeko eta akordioak egiteko organo gisa duen balioa nabarmentzeko. Hori gorabehera, egokitzat jotzen bada, arau jakin batzuk Foru Arauan sartu ahal izango dira.

Nolanahi ere, gure ustez, **FUNTZIONAMENDU ARAUDIAK** gai hauek jaso beharko lituzke, besteak beste:

1.- DEIALDIA ETA AZTERGAIEEN ZERRENDA

- Kontseiluko kideek behar adina denbora izan behar dute bidali zaien informazioa aztertzeko, gaiak landu eta, hala dagokionean, akordioak lortu ahal izateko. Hala ere, Finantzen Euskal Kontseiluaren deskarguak eta horrek Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren eta toki erakunde bakoitzaren Foru Planaren likidazioan, aurrelikidazioan eta aurrekontuan duen eragina aztertzen direnean, Arabako Toki Administrazio eta Finantzetarako Lurralde Kontseiluaren bilera premiaz eta ahalik eta arinen egin behar da, Finantzen Euskal Kontseiluaren bilera izan denetik gehienez astebetera.

- Era berean, kide guztiei eskubidea onartu behar zaie aztergaien zerrendan gai berriak proposatzeko. Prozedura behar bezala arautu behar da, eraginkorra izateko bermeak emanda.
- Aztergaien zerrendako gaien izaera ezinbestez bereizi behar da. Batetik, izaera erabakitzailea (batez ere nahitaezko kontsultak direnak), eta, bestetik, izaera informatzailea dutenak.

2.- AKTAK ETA ESPEDIENTEAK

- Aztergaien zerrenda hobetzeko egiten diren proposamenak akten eta espedienteen dokumentazioan jaso beharko lirateke. Ildo horretan, adibidez, bozkatzeko moduko ekimenek merezi duten botoa eta botoaren zentzuan eragina duten alegazioak jaso behar dira, espedienteen ageri diren ondorioei begira. Hori guztia gorabehera, boto partikularrak aurkeztu ahal izango dira, eztabaidatzeko azaltzen diren gaietan.

3.- LANTALDEAK EDO BATZORDEAK

- Bereziak direlako tratamendu berezia behar duten gaiei dagokienez, komenigarria izango litzateke Kontseiluaren barruan lantaldeak edo batzordeak sortu ahal izatea. Talde horiek esleitu zaizkien gaiak aztertzeaz eta txostenak nahiz proposamenak egiteaz baizik ez dira arduratuko, ezin izango baitute akordiorik hartu.

4.- TOKIKO ORDEZKARIEI AHOLKU EMATEA

- Komenigarria izango litzateke Kontseiluan ordezkaritza duten instituzioek edo administrazioek bileretara joateko izendatzen dituzten aholkularien agerpena arautzea. Pertsona horiek, aholkulari gisa, aztergaien zerrendaren eta ezarritako epeei dagokien dokumentazioaren berri izango dute, eta bilerara joango dira, hitz egiteko eskubide izanda baina bozkatzeko eskubiderik gabe. Hori gorabehera, une zehatzetan, aholkulari bereziak ekarri ahal izango dira, Foru Arauaren 6. artikuluan adierazita dagoen moduan.

LABURPENA ETA ONDORIOA

Azken batean, EUDELen ustez, Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluak organo egokia izan behar du elkartzeko eta lan egiteko, Arabako foru eta tokiko administrazioek akordioak lortu ahal izan ditzaten. Egin diren bileretan udal-ordezkarri gisa dugun eskarmentua ikusita eta aztergaia hobetzeko ikuspegi eraikitzailea izanda, gure ustez, funtzionamendu arauak behar ditugu Kontseiluak lurraldean duen zereginaren balioa nabarmentzeko eta indartzeko, hain zuzen ere, parte hartzeko eta koordinatzeko izaera hori behar bezala bermatu ahal izateko. Horrez gain, gure ustez, arau horiek agerraldi honetan aletu ditudan gaiak hartu behar dituzte barne.

ESKER ONAK

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet batzordeburuari eta Batzarreko taldeei, arin erantzun diotelako agerraldia egiteko aurkeztu dugun eskaerari. Bestetik, espero dut agerraldi honen edukia interesgarria eta erabilgarria izatea, gure instituzioen eta, batez ere, Arabako Toki Administrazio eta Finantzetarako Lurralde Kontseiluaren funtzionamendua hobetzeko.